



Ekintzaileentzako gune berria Beasainen

Anezka: nueva incubadora de empresas



zerbitzu enpresa gunea
centro de empresas de servicios



AURKIBIDEA | ÍNDICE

ETORKIZUNeko BEASAIN ERAIKITZEN

- 2 → Enplegua sustatzearen alde lanean
- El Ayuntamiento abona la cantidad pendiente de pago por las obras de Oriamendi
- La nueva incubadora de empresas abre sus puertas
- Beasaingo Udalak lankidetzaren hitzarmena Musikenerekin
- Beasain lagunkoia Diagnosi fasean

BEASAIN, HERRI BIZIA

- 4 → Ioinatz jaiak 2016

BEASAINDARRAK PROTAGONISTA

- 6 → Elkarlanean, dantza tradizionala egonkortzeko urratsak ematen

EKAINEAN BEASAINEN...



GUTUNA

Aitor AldasoroBeasaingo
Alkatea**ENPLEGUA SUSTATZEAREN ALDE LANEAN**

Krisiak ere jo du geure ingurua eta herria. Jakitun gara, lan egiteak burujabe eta duinago egin gaituela. Lanbideren azken datuen arabera, Beasainen %7,51ko langabezia tasa dugu. Ehuneko horren atzean, beriz, pertsonak daude, lanik ez duten 698 pertsona.

Datuei erreparatuta, ezin dugu beste aldera begiratu. Erakundeok, dagokigun erantzukizuna hartu beharra daukagu, eta zer esanik ez udalak, herritarrengandik gertuen dagoen instituzioa den aldetik.

Haste-hastetik lehenetsi dugu ekonomiaren eta enpleguaren sustapena geure jardunean, horien eskutik baitatuz gainerako guztiak. Ongizatea, norberarena zein kolektiboarena, enpleguari hertsiki lotuta dago. Baita, herri baten aberastasun maila edota gizarte ongizate zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna ere.

Horregatik, Goierriko Garapen Agentziarekin elkarlanean enplegua sustatzeko eta langabetuak formatzeko egitasmo ugari garatzen eta lantzen aritu gara, herritarrei erraztasunak eta aukerak eskaini ahal izateko. Horretarako, baina, beharrezkoa da errealitatea ezagutzea, hau da, enpresen eskutik beren beharrak zein diren ezagutu behar da formazioa behar horietara egokitzeko. Eta horixe egingo da enplegu planaren bitartez.

Era berean, ideia berritzaileak dituzten ekintzaileei ere gure babesa eman eta laguntza eskaini behar diegu beren bidea urratzen has daitezen, izan ere, gaur egun, oso zaila da ezerezetik enpresa txiki bat martxan jartzea. Eta horretarako sortu dugu Anezka inkubategia, ideia-sortzaile eta ekintzaile diren pertsona horientzat topagune ezin hobea izatea nahi dugun espazioa.

LA PROMOCIÓN DE EMPLEO, NUESTRA PRIORIDAD

Hemos trabajado desde el primer día por impulsar la economía y el empleo en nuestro municipio mediante diferentes iniciativas. Son fruto de ello, la elaboración del Plan para la Revitalización del Comercio (PERCO), en plan de empleo o la recién inaugurada incubadora de empresas, Anezka. Y es que, nuestro único propósito es ofrecer a la población beasaindarra toda nuestra ayuda y nuevas oportunidades de empleo para garantizar su bienestar y el de toda la ciudadanía.

**EL AYUNTAMIENTO
ABONA LA
CANTIDAD
PENDIENTE DE PAGO
DE 274.511,88 € A
LA CONTRATA QUE
REALIZÓ LAS OBRAS
DE ORIAMENDI**

“Azken osoko bilkuran kreditu aldaketa bat egitea onartu zen Oriamendiko obra egin zuen enpresari zor zaizkion 274.511,88 euroak ordaintzeko. Honekin, enpresari denbora honetan eragin zaion kalteari amaiera eman nahi izan dio udalak. Ordainketa egitea lehenetsita, orain, bestelako neurririk hartu behar den aztertzen ari da udala.”

La amplia diferencia existente entre las propuestas de liquidación y la falta de mediación y actuación ante el conflicto surgido entre las partes, fue lo que obligó al actual equipo de gobierno a pedir un nuevo informe imparcial para poder, de una vez por todas, recepcionar y liquidar las obras y poner fin al perjuicio ocasionado a la contrata abonándole lo que le corresponde.

La obra se licitó por 489.827,88 euros y la propuesta de liquidación presentada por el Ingeniero imparcial designado por el Colegio de Ingenieros de Caminos, Canales y Puertos cifra la liquidación en 765.560,60 euros, por lo que el informe realizado por dicho técnico, concluye que hubo una desviación del 56% en la obra y que quedaba pendiente de pago la cantidad de 274.511,88 euros a la contrata que realizó las obras. La desviación, según el informe imparcial, se debe a las numerosas deficiencias y carencias que presentaba el proyecto inicial, las cuales tuvieron que ser corregidas en obra con su consiguiente sobrecosto.

Así las cosas, se aprobó en el último pleno una modificación de crédito que ha permitido al Ayuntamiento pagar la cantidad que quedaba pendiente a la contrata que se encargó de llevar a cabo las obras de Oriamendi. No obstante, Urak se ha comprometido a abonar al Ayuntamiento dicha cantidad.

LA NUEVA INCUBADORA DE EMPRESAS ABRE SUS PUERTAS

Anezkak, ekintzaileentzako egoitza berriak ateak ireki zituen maiatzaren 19an. Kale Nagusian kokatua dagoen zerbitzu enpresa gunea honek, 4 bulego eta bilera gela bat ditu eta enpresa jarduera berriak sortu eta sustatzea du helburu.

Anezka. Así ha sido bautizada la recién inaugurada incubadora para empresas ubicada en Kale Nagusia.

Impulsar y apoyar la creación de empleo ha sido desde el primer día una de las principales prioridades del equipo de gobierno. Con el objeto de impulsar la creación de nuevas iniciativas empresariales, el Ayuntamiento de Beasain ha firmado un convenio con Goieki. La nueva incubadora de empresas ha sido el resultado de esta unión que ha permitido aprovechar al máximo el potencial de ambas instituciones y favorecer la creación de empresas innovadoras ligadas al tercer sector.

En este contexto, el Ayuntamiento ha puesto a disposición de este proyecto un pequeño centro



compuesto por cuatro oficinas para el uso de personas emprendedoras. Goieki será la encargada de gestionar este espacio y de seleccionar a las nuevas inquilinas e inquilinos de la

incubadora. En cualquier caso, las empresas de servicios a las que se les adjudique un local en Anezka deberán ofrecer un valor añadido a Beasain y/o a la comarca del Goierri.

BEASAINGO UDALAK LANKIDETZA HITZARMENA SINATU DU MUSIKENEREKIN



Musika sustatzeko beste urrats bat eman du Beasaingo udalak Musikenerekin lankidetzaz hitzarmena sinatuz. Honen baitan, Igartza Musika zikloaren barruan, Musikeneko ikasleen eskutik ikasturteko, gutxienez, kontzertu bat emango da eta Igartza Musika Beka sortuko da. Beka honen hartzaileak Musikeneko ikasleak izango dira eta sarituek kontzertua emango dute Beasainen.

BEASAIN LAGUNKOIA DIAGNOSI FASEAN DA

Beasain, joan den urte amaieran atxiki zen programa honetara. Beasain Lagunkoiak helburu du, besteak beste, pertsona helduei egokitutako herria eraikitzea, zahartzea ahalbideztzen dieten erraztasunak emateko. Horretarako, baina, beharrak aztertu behar dira. Diagnosia, 8 arlotan dago banatua eta herriko eragileekin elkarlanean gauzatuko da: Asmube, Nagusilan, Gurutze Gorria, Gueske eta Jubilatuen egoitza. Diagnosi fasearekin irailan amaituko da eta ondoren, zein ekintza eramango diren aurrera zehaztuko da.

LOINATZ JAIK 2016





BEASAIN,
HERRI BIZIA



• BEASAINDIK •



ELKARLANEAN, DANTZA TRADIZIONALA EGONKORTZEKO URRATSAK EMATEN

Euskal kulturaren aldeko apustuan, Beasaingo Udalak, legegintzaldi osorako lankidetz hitzarmena sinatu du Dantza.com dantza sustatu eta hedatzeko elkartearekin. Akordioak, dantza tradizionala Beasainen egonkortzea du helburu, eta honen baitan, dantza irakasleentzako formazio saioak antolatuko dira eta Beasainen errotzen doazen euskal dantza ekimenak sendotzeko eta egonkortzeko plana garatuko du Dantzan.com-ek. Baina, horretarako, beharrezkoa da benetako protagonistak diren dantza taldeak proiektuan inplikatzeko eta beren beharrak, arazoak, beldurrak, erronkak... ezagutzea. Elkarren ondoan egin beharreko bide horri ekiteko, lan-bilera egin zuten Aurtzaka eta Ostadarreko kideek, dantzan.com-eko eta udaleko ordezkariekin.

Bileraren balorazioa, dantzan.com elkartearen eta dantza taldeen eskutik:



Bildutakoak: Aitor Aldasoro eta Xabier Matarranz Udaletik; Mikel sarriegi eta Izaskun Salazar Aurtzakatik; Irati Otamendi Ostadarretik eta Oier Araolaza eta Josu Garate dantzan.com-etik

DANTZAN.COM - Josu Garate

"Dantzan.com-etik ilusioz egin diogu kolpe egindako apustuari, eta eskertuta gaude Beasaingo udalak gure esku uzten duen ardurarengatik, baina akordioa sinatu izanaz eta ekarriko digun lanaz haratago, esker ona Beasaingo moduko udal batek dantzarekiko eta batez ere, tradiziozko dantzarekiko erakutsi duen interesarengatik. Ez da ohikoa izaten, eta beraz, dantzan-etik horixe nabarmendu nahiko genuke.

Aurtzaka eta Ostadar taldeei zorioneko daudela adierazi nahi diegu, halako babesa eta interesa azaltzen duen udala izateagatik. Dantzan-etik zuzenean haiei galdetuz hasi nahi dugu elkarren ondoan egin beharreko bidea, halako lan batek, aurretik analisi kuantitatiboa eskatzen duelako, ondoren, protagonistek, zuzenean, proposamen balorazio kuantitatiboa egin dezaten, haiena baita azken hitza. Momentua eta aukera aprobetxatu dezaten eskatu beharrean gaude, eta batez ere, asmo eta anbizio handikoak izan daitezela! Helburu, ilusio eta ametsekin gora apunta dezagun, beti izango da-eta beherago apuntatzeko tarte!

Udalari berari erronka bota nahi diogu elkartetik: une honetantxe EAEn eta Gipuzkoan bereziki, dantzaren heziketa eta formazioaren alorrean, oro har, ematen ari diren mugimenduen zurrunbiloan oina jarri eta, zergatik ez Beasain probintzia mailan euskal dantza tradizionalaren erreferentzia bihurtu? Halako erronka bat zailtasunez, galderaz eta ziurgabetasun ugariz josita dagoela jakinda ere, orain artean entzungor egin duten erakunde publikoetan, norbaitek, inoiz, egin beharreko apustua dela uste dugu. Zergatik ez Beasain?"



AURTZAKA DANTZA TALDEA - Mikel Sarriegi

"Lehen bileraren ondoren, esan dezakegu, gutxienez, pozgarria iruditzen zaigula Beasaingo dantzaren egoerarekiko kezka udalak honelako konpromezu baten bidez adieraztea. Lehendik ere, eta neurri handi batean, gure lana herriarentzako mesedegarri delakoan egiten dugu eta alor honetan, sustraitu ditzakegun zutari guztiak onerako izango dira. Egindako proposamenak zabalak eta asmo handikoak dira, eta ona deritzogu horrela planteatzea abiapuntu gisa. Aholkularitza lana egiteko lan-taldea aditua eta aritua denez, horrek, emaitzekiko itxaropentsu egoteko arrazoiak ematen dizkigu. Ea denon artean emaitza egokiak bideratzen ditugun".

OSTADAR DANTZA TALDEA - Irati Otamendi

"Hitzarmen interesgarria iruditzen zaigu. Dantza munduan gabiltzanon aldetik, onurak ikusten dizkiogu hitzarmenari. Onura horiek, ez ditugu ikusten dantza talde bezala soilik, dantza irakasleentzat lagungarri izango den aldetik edo dantza taldearentzat berarentzat duen interesetik baita ere. Beasaindik hasita, Goierin dantza aktibatzeke balio izango duelakoan gaude. Horixe da gure nahia. Horrez gain, proiektu berriak aurrera eramatea eta Euskal Dantza hemen inguruan zabaltzeko modu eraginkor bat izan daitekeela iruditzen zaigu".



3-4-5

ALBAOLA ZURE PLAZAN
Igartza Jauregian

18

**FAMILIA
TAILERRA**

16:00 Igartza
Jauregian

Neskatzen koroak
egitea Aurtzaka
dantza taldearekin



25-28

**SAN PEDRO
JAIK**

Ezkiaga auzoan



29

**LOINAZ ABESBATZAREN
KONTZERTUA**

19:30 Arriarango elizan



JAKINARAZPENAK:

**Antzizar kiroldegia
Udalekuak**

Udalekuetarako izen ematea: maiatzaren 23tik ekainaren 17ra

Txandak:

1. Txanda, ekainak 27-uztailak 8
2. Txanda, uztailak 11-22

Jardueren programa (10:00-13:00)

- **Kolonia txiki:** Igeriketak + psikomotrizitatea + jolasak
- **Kirol kolonia:** Igeriketa festa + olinpiadak + kirol jolasak
- **Kirol festa:** Olinpiadak + kirola & ingelera + ur festa
- **Kirol abentura:** Eskalada + arku tiroketa + monoziklo-slackline

Informazio gehiagorako galdetu Antzizar kiroldegian.

Bertso eskola

2016-2017 ikasturterako izen ematea: ekainak 17 arte. (LH-ko 3. Mailatik gora)

Matrikula orria bertso eskolan eskuratu, bete eta ikastetxera edota udaleko kultur sailera eraman behar da.

Informazio gehiago:

943 02 80 63 | kultura@beasain.eus

Beasain Ballet Taldea

2016-2017 ikasturterako izen ematea: (Helduak eta 6 urtetik gorako haurrak)

Informazio gehiagorako:

ballettaldeabeasain@gmail.com 943 10 46 46 | 607 71 78 03



KZ gunea

Ekaineko ikastaroak

2016/06/06-2016/07/06

Norbere erabilerarako Google aplikazioak

Aplicaciones Google para la gestión personal

Ofimatika orokorra

Ofimática general

2016/06/06-2016/06/22

Marka pertsonala eta LinkedIn

Marca personal y LinkedIn

2016/06/13-2016/06/22

Instagram, argazkiak atera eta partekatu zure unerik onena

Instagram, captura y comparte tus mejores momentos

Ondo ibili, ondo izan irteerak

Ordua 10:00 Elkargunea: Estatua de San Martín

Ekainak 2, 9, 16, 23 eta 30 (ostegunak)

Arrastaka mendi elkarteak

4-5 Picos Inferno

18-19 Barranco Furco



**Beasaingo Loinatz
Musika Eskola**

"Musika bai" Udalekuak

Izen ematea zabalik:

Ekainaren 10era arte.

Udalekuak:

2016/06/23-2016/07/08 bitarte

Izen-ematea:

**Beasaingo Loinatz
Musika Eskolan**



Beasaingo Udala